

# Arrasate

P R E S S U

1996ko  
Irailak 27  
333. zenb.

**BERRIAK**

**Bi mozio gaurko plenoan**

**ELKARRIZKETA**

**Jesus Mari Villar**

**IRITZIA**

**Matilde Sainz**

## EUSKALAN

Lan munduan euskarak aurrerapausoak egin ditzan eta presentzia handiagoa izan dezan sortutako elkartearen aurkezpena egingo da urriaren 9an Amaia antzokian.






**BALTZARIAK**  
**erango**

**SUKALDERAKO  
EKIPAMENDU  
OSOA**

- Bainu altzariak
- Armairu enpotratuak

*ELEKTRAGAILU BANATZAILEAK:*

**FAGOR** 

 **Aspes**

 **DeLonghi**

 **Candy**

**ERAKUSKETA**

**Legarre Pabilioia, z/g**

**Gipuzkoa Etorbidea • ARRASATE**

**Tfnoa: 79 01 92**

# Munduko argudiorik onena

**O**so gaztea zen. Hondarribia eta Irun urrun zeuden bere herritik, oso urrun. Halere herri hauetakozen bait emakumek herriotako Alardeetan izan zuten jarrerak bere barruko teklaren bat jo zuten. Txaro Arteaga, Josune Urresolo, Mentxu Pastor, Iñaki Alvarez, Iñaki Altube, Alfonso Sastre, Joxerra Gartzia, Jose Luis Orella, Arantza Urretabizkaia, Txomin Artola eta gure gizarteko beste zenbait ahotsek esandakoa ordura arte emakume hauen jarreraz gauza hutsa zen berak esango zuenaren aldean. Horregatik munduko argudiorik onena idaztea pentsatu zuen.

Horretarako, behar beharrezkoa zuen, hasteko, izenburu bat aukeratzea bere argudiorako: "Alardea gizonezkoen gauza". Ez, hau EGINek erabilia zuen. "Alarde bi". Ezta hau ere, Txaro Arteagak erabili baitzuen berau. Ozena baina ez harroegia behar zuen izan bere izenburua. Izen adierazgarria eta ulergarria. Baina zein? Ez zitzaion bururatsen eta aurrera egin zuen bere argudioarekin izenburua asmatu gabe utzita. Argudioak topatzen hasi zen, bada, eta bururatu zitzaion "emakumek herriko jai batean parte hartzeko eskubidea" izan zitekeela. Ez,

ez. Argudioa izan, bada, baina ez du nahiko pisurik. Betidanik Alardean gizonezkoek bakarrik desfilatu badute ere "Tradizioak prozesuak dira eta dena bezala, hauek ere aldatu egiten dira". Jakina, tradizioa hautsi egin baita askotan, pentsatu zuen berekiko, hala nola, emakumek hautatzeko eskubidea aldarrikatu zutenean, emakumek lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntza aldarrikatu zutenean eta abar.

"Alarde historikoa 1996.ekoa" zioen Iñaki Altubek. "Alardearen historian emakume eskopetadunak hainbat metro egin zutela kontatuko baita gaurtik aurrera". Hau originala da, zioen idazle gazteak, baina ez da argudioa, eta gainera, esandakoa esanda dago eta ez du merezi errepikatzerik.

Horren originala izan nahi zuen, munduko argudiorik onena asmatu eta asmatu jardun zuela. Eta horretan zegoela, konturatu zen ordura arte dena esanda zegoela egunkari eta aldizkarietan, eta argudioetatik jarretara pasatzeko ordura zela. Jarrera irekietara, alegia. Entzutea tokatzen zaigun horietakoetara.

**MATILDE SAINZ OSINAGA**



**Memesa**  
**79 42 22**



**ARRASATEKO UDALA**

*Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du*



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du*



*Aldizkari honek Euzko Jauriaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du*

## • ARRASATE PRESS •

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40


**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publikatzailea:** Alberto Garro eta Kaitin Allende (Tfnoa: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikeme Altube (Tfnoa: 77 08 15). **Maketzailea:** Golo Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Baulista Agoria, Leintz Berto eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rifa mungia, Maño Egües, Rufina Ollasagasti, Alazne Portu, Erdu-AEK euskaltegia. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Legu-Gordailua:** 1124/86. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

**Azala:** Golo Arana, Euskalaren logotipoan erabilia.



**LOGOPEDIA  
ZENTRUA  
ARRASATE**

**HIZKUNTZ ARAZOAK**

**HIZKETA ARAZOAK**

**AHOTS ARAZOAK**

**IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK**

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.  
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

**LILYRA  
OIHALAK**

**Maritxu Kajoirako**

- Zeure soinekoak egiteko oihala eta osagarrietan aukera zabalena
- Soinekoak moztu eta josten dira
- Egindako soinekoak saltzen dira
- Oso prezio onak

Zerkaosteta kalea, 5 behea  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 89 72

**I  
R  
T  
A  
B  
E  
R  
N  
A**

Ferrerias kalea  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 56 11

.....

**Ez dezagun drama handiagoa egin**

**G**osez gartzelan, gosez Buen Pastorren eta gosez Europan. Eta gu, senideok, justizia gosez: hurbiltasunak ase ezin dezakeena baina arindu bai behintzat. Jakin badakigu, ostera, eta guretzat nahikoa ez den arren, horrenbeste urtetan aldarrikatu dugun presoen hurbiltasuna eta bateratzea heldu dagoela, ezin baita beste moduren batera izan. Eta gero... gero gerokoak.

Baina ikusgarriena, dena den, guk geuk, senideok, urte luzetan gu etenbarik izorratu gaituen Espainiako lege penitentziarioa bete dadila eskatzen ibili behar izatea da. Eta orain, horixe da hain zuzen gure erreibindikazio nagusia; bete dadila espai-

nierrek eurek egindako legea eta gure senide presoak beren etxeetatik ahalik eta gertuen egon daitezela, Euskal Herriara ekar ditzatela alegia.

Jakin beza gure herriak, herritar xumenetik agintari gorenara, ez diogula gure helburuari etsiko eta hori gosez eskatu behar badugu, orain bezala, horrela egingo dugula. Baina dagoeneko heldu da unea gure senide presoekin zera esateko: "Ez, zuek ez, zuek nahiko duzue jada, ez duzue sofrimendu gehiagorako gure baimenik, debekatua duzue gose grebarik egitea. Eta punto".

Baina argi orduan, goseari entzun nahi ez dionak, txingorrari, trunboiari, suari eta datorkion guztiari egin beharko dio aurre. Guk egin ez dugun eta, areago, maite ez dugun legearekiko errespetua eskatu behar izatea da gure dramarik handienetakoa. Ez dago "paso" egiterik, urte asko badira ere ez baikara indiferentziara ohi-tzen. Ez dezagun drama handiagotu.

**ARRASATEKO SENIDEAK**

.....

**Atzerriko ikasle baten alde**


**L**.Lakuntzaren gutuna irakurri ondoren, Eskola Politekniko inguruan dabilen jendeari mezu hau luza-tzea gustatuko litzaidake, ekintzak hitzen atzetik etor daitezela asmoz.

Nire ustez, Eskolak eta Eskolatik hurbil gaudenok lehen bailehen ahalegin bat egin beharko genuke aipatutako ikaslearen alde, adibidez, beste kotxe bat erosteko dirua lortzea. Amaitzeko, bakarrik esatea Eskolari nire eskuetan dagoen laguntza emateko prest nagoela, batez ere zerbait antolatzea erabakitzen badute gai honen inguruan.

**J.J. ZABARTE**

**The door to**

**La Puerta al**



**ALEMANIERA**

**Ikastaroak Arrasaten goizez**

Informazio gehiagorako  
LA PUERTA AL INGLESeko bulegoetan  
Erdiko Kale, 37 • Tfnoa: 79 90 36 • ARRASATE  
Burdinate, 5 • Tfnoa: 76 30 01 • BERGARA


**WANTED**



Tipo hau ezagutzen baduzu eta zapatu honetan berarekin topo eginez gero tragu bat ordainduko dizu, ezkondu egiten da eta.

**Bere Banda**

# Ikastaroren batean eman duzu izena?



**Mikel Garcia**  
Ikaslea  
(17 urte)

Orain dela hamar urte ingelesa ikasten hasi nintzen eta aurten ere horretan jarraituko dut.




**Nerea Makazaga**  
Ikaslea  
(14 urte)

Ingelesean eta trikitixan. Ingelesera astero lau egunetan joango naiz, eta ostiralean trikitixa ikastera.



**Vanesa Lizaranzu**  
Ikaslea eta langilea  
(20 urte)

Lanean eta ikasten nabil, beraz, ez dut ikastaroetara joateko denborarik.



**Ramon Aranbarri**  
Langilea  
(28 urte)

Ez dago bereziki atentzioa deitzen didan ikastarorik, beraz, ez dut ezertan izena emango. Denbora askorik ere ez dut.



**Eugeni Etxenagusia**  
Dendaria  
(48 urte)

Ez dut denborarik, lanean nabil eta. Aukera izango banu eskulan ikastaroan emango nuke izena, asko gustatzen zait.




**Edu Barriuso**  
Ikaslea  
(20 urte)

Ikasten ari naiz baina horrez gain argazkigintzan ibiltzen naiz, egoitzan horretarako laborategia dugu eta. Bestela ez dut ikastaro gehiagotara joateko astirik.



**Kristina Kintana**  
Ikaslea  
(25 urte)

Ez. Kanpoan ari naiz ikasten eta nahikoa dut horrekin. Bestela gustatuko litzaidake zerbaiten izena ematea.



**Asier Urbizu**  
Ikaslea  
(21 urte)

Ikasten ari naiz eta eskolatik kanpo ez dut ikastaroetara joateko asmorik. Uste dut gainera, ez dudala astirik izango.



**Zure OPEL  
banatzailea  
ARRASATEN,  
zergatik joan  
urrunago?**

**Uztailean  
zapatueta itxita!**

**OPEL**

**TAKOLO AUTOAK**

Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia Tfnoa: 79 05 86 ARRASATE

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritetxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit .....79 53 00  
 Iguualitoria .....79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) .....79 39 00  
 (emakumeak) .....79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua .....79 90 11

**Gurutze Gozia**  
 Bergara .....76 55 76

**DYA**  
 Antzuola .....76 62 91

**Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larrialdiak) .....79 13 57  
 • Txanda hartzeko; medikuntza orokorra eta pediatria .....77 03 46  
 • Espezialitateak .....77 05 78  
 77 12 64  
 Oñati .....78 08 52  
 Eskoriatza .....79 98 58  
 Aretxabaleta .....79 74 58  
 Aramaio .....(945) 45 51 16

**Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulantziak .....45 87 44

**Udaltzaingoa**  
 Oñati .....78 04 11  
 Bergara .....76 14 69  
 Arrasate .....79 14 39  
 Aretxabaleta .....79 10 52  
 Eskoriatza .....088

**Ertzaintza**  
 Arrasate .....79 71 99

**Suhiltzaileak**  
 Udal taldea .....79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile burua .....79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea .....088

**Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) .....79 09 00  
 Elektrizitatea (Iberduero) .....12 01 62  
 Gasas .....900 40 05 23  
 79 78 44  
 79 76 78

**Garraioak**  
 Taxiak .....79 12 22  
 P.E.S.A. ....79 14 19

**Hirugarren adinekoendako zentruak**  
 Iturbide Egoitza .....79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza .....79 81 57

**Kontsumitzailearendako informazioa**  
 KIUB-OMIC .....79 51 55

**Monterrongo liburutegia**  
 Monterron .....77 01 05

**Irratia**  
 Arrasate Irratia .....79 58 77

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Ostirala 27**

Egunez eta gauez: Español. Iturriotz.

**Larunbata 28**

Egunez eta gauez: Corcuera. Musakola.

**Igandea 29**

Egunez eta gauez: Irizar. Erguin.

**Astelehena 30**

Egunez eta gauez: Amezua. Santamaina.

**Astearte 1**

Gaueko 10ak arte: Ruiz. Maala.  
 Egunez eta gauez: Estella. Bergara.

**Asteazkena 2**

Gaueko 10ak arte: Morales. San Andres.  
 Egunez eta gauez: Mozos. Bergara.

**Osteguna 3**

Gaueko 10ak arte: Azkoaga. Ferrerías  
 Egunez eta gauez: Camacho. Bergara.

**27 OSTIRALA**

- **ZINEA**  
 "Drácula" 7etan eta 10etan.
- **GRIPEAREN AURKAKO TXERTOIA**  
 Uribarriko jubilatuetan eguerdiko 12etatik ordubata arte.
- **SAN MIGEL JAIAK GARA-GARTZAN**  
 Arratsaldeko 7etan jaien hasiera. 7.30etan erromeria Ines eta Naiara trikitilariekin. Gaueko 11etan Txinparta taldearekin dantzaldia. 12etan Lamina eta Neanderthaldeko gizonei ongietorria. Arratsalde osoan zehar buzkantzak tomateaz salgai Garagartzako auzo-etxean.

• **GUDARI EGUNA**  
 Arratsaldeko 8etan manifestazioa Seberon. KAS-ek antolatuta.

• **SAN MIGELAK ARETXABALETAN**  
 Arratsaldeko 6.30etan erraldoi eta buruhandien kalejira. 7etatik 9.30ak arte trikitilariekin kalejira eta gaueko 11.30etan Markeliñe antzerki taldearen antzezlana.

**EKIN EMAKUME TALDEAREN IKASTAROAK**

*EKIN elkarteak hiru ikastaro antolatu ditu ondorengo hiruhilabetetan emateko. Dantza, euskal kanten eta eskularen ikastaroak. Dagoeneko matrikula epea zabalik dago. Ikastaro hauek guztiak AED elkartearen egoitzan burutuko dira. Izena emateko edo argibide gehiagorako deitu 77 12 28 zenbakira.*

**28 LARUNBATA**

- **ZINEA**  
 "Drácula" arratsaldeko 5etan.  
 "Eraser" 7etan eta 10etan.
- **EUSKO ALKARTASUNAREN EKITALDIA**  
 Eusko Alkartasunaren X. urteurrena dela eta, afiliatu eta laguntzat hainbat ekintza antolatu dute. Goizeko 11.30etan San Frantzisko elizan meza. 2.30etan Alkartetxean bazkaria izango dute eta bertan Iñaki Oliveri izango da.
- **MARITXU KAJOI NOBENARIXUA**  
 Arratsaldeko 6.30etatik aurerra Herri plazan. Ondoren ardo eta gazta hurbiltzen diren guztientzat.
- **SAN MIGEL JAIAK GARA-GARTZAN**  
 Eguerdiko 12etan meza eta ondoren luntxa. Ordubatean Txikitxu dantza taldearen emanaldia. 5etan Gorritiren esku-tik jaialdia. 7etan karaokea. Gaueko 10etan Eguzki taldearekin dantzaldia. 12etan bolo txapelketa eta 4etan txokolatada. Arratsaldeko 6etatik 10.30etara Garagartzako auzo-etxean buzkantzak tomateaz salgai.

• **SAN MIGEL JAIAK ARETXABALETAN**  
 Goizeko 11etan txalaparta emanaldia. 2.30etan herri bazkaria. 7etan Beinke-Loramendi dantza herriko plazan. 10etan bolo txapelketa. 10.30etan txinparta taldearekin dantzaldia Durana kalean. 11etan pilota partidua Goizeko 11etatik 8ak arte Artisau Feria herriko plazan. Egunean zehar talo, sagardo postuak izango dira.

• **ESKUALDEKO MANIFESTAZIOA ARETXABALETAN**  
 Eskualdeko manifestazioa arratsaldeko 8etan, Gudari eguneko ekintzen barruan.

**29 IGANDEA**

- **ZINEA**  
 "Eraser" 5etan, 7etan eta 10etan.
- **SAN MIGEL JAIAK GARA-GARTZAN**  
 Eguerdiko 12etan meza. 12.30etan haur jolasak. 2.30etan herri bazkaria eta ondoren mus-briska txapelketako finalak. 6.30etan Txinparta taldearekin erromeria.
- **MENDI IRTEERA BESAIDERKIN**  
 Behorlegira mendi irteera. Autobusa goizeko 7etan Garibaitik.
- **INSUMISIO EGUNA BERRIOZARREN**  
 Arrasateko Antimilitarista taldeak autobusa antolatu du. Irteera goizeko 9.30etan Garibain.
- **SAN MIGEL JAIAK ARETXABALETAN**  
 Goizeko 10.30etan San Migel txirrindulari froga. Ordubatean herri kirolak. 4etan mus txapelketa. 7etan akordeo orkestraren kontzertua Durana kalean.



**MARITXU KAJOI**  
**Urriaren 4an Maritxu Kajoi eguna.**

**30 ASTELEHENA**

- **ZINEA**  
"Eraser" 7etan eta 9.30etan.
- **GRIPEAREN AURKAKO TXERTOIA**  
Santamainako jubilatuen etxean eguerdiko 12etatik ordubata arte.

• **GOIKOBALU TXIKIKO BILERA**

Goikobalu Txiki abesbatzako partaide izango diren guztiakin bilera egingo du arratsaldeko 6etan San Franzisko Xabier ikastolako lekalean. Partaide diren eta izan nahi dutenentzat izango da bilera.

**PERKUTSIO IKASTAROA GAZTETXEAN**

**Perkutsio ikastaroa emango da Gaztetzearan ostegunero. Ordutegia arratsaldeko 5etatik 7ak arte. Irakaslea: Iñaki Bruñas. Urriaren 3an hasiko da ikastaroa eta instrumentoa ez dutenak ere joan ahal izango dira.**

**LANKIDETZA BEKA**

Arrasateko ingurugiro eskolan prestatzeko lankidetzaren beka kalera dute. Bekaren iraupena urriaren 14tik ekainaren 30a arte. Bekadunak hileroko 120.000 pta. jasoko ditu. Bekadunak ezin du ez soldatapeko lanik ez bestelako dirulaguntza edo bekarik izan. Eskabide-erako epea urriaren 7an bukatuko da. Helbidea: Udaletxea, Hezkuntza saila.

**1 ASTEARTEA**

- **ZINEA**  
"Eraser" 7etan eta 9.30etan.
- **GRIPEAREN AURKAKO TXERTOIA**  
Musakolako jubilatuen etxean eguerdiko 12etatik ordubata arte.

**TAICHU-CHUAN IKASTAROA**

Urriaren 19 eta 20ean Chikung meditazio ikastaroa Barriako aterpetxean. Izena emateko epea urriaren 4an gaueko 8.30etatik aurrera. Antolatzaileria Valentin Zurbano. Informazio gehiagorako deitu 71 41 91 zenbakira.

**TAILA IKASTAROA**

*Goi mailako taila ikastaroa urriaren 5tik aurrera. Klase-aktailaginen elkartearen Erguin kalea 19, behean emango dira. Izena emateko deitu gauraldean 79 40 79 (Felix) eta 79 67 64 (Imanol) zenbakietara. Arrasateko tailaginen elkarteak antolatuta.*

**2 ASTEAZKENA**

- **GRIPEAREN AURKAKO TXERTOIA**  
Gesalibarko alkatetzan eguerdiko 12etatik 12.30etara eta Garagartzako alkatetzan 12.30etatik ordubatera.

**NAFARROA OINEZ 96**

Urriaren 13an Etxarri Aranazen ospatuko da Nafarroa Oinez. Aurretan Andra Mari ikastolari egokitu zaio antolatzea eta laguntza behar dutenez horretarako norbait gertu balego izena eman dezala AEDn.

**3 OSTEGUNA**

- **ZINEA**  
"Mil ramos de rosas" 7etan eta 9.30etan.
- **GRIPEAREN AURKAKO TXERTOIA**  
Udalako eskolan eguerdiko 12etatik 12.30etara. Meatzerekan 12.30etatik ordubata arte.

**SEXUALITATEAZ  
INFORMAZIO ZERBITZUA**

Arrasateko Udalak "Sexualitatearen arloan gazteei zuzendutako informazio eta aholkularitza zerbitzua" bete nahi du, ikasturte honetarako.

Proiektuak udaletxean aurkeztu behar dira, Emakume edo Gazteria Sailetan, urriaren 11a arte.

Informazio gehiago udaletxeko Emakume nahiz Gazteria Sailetan jaso daiteke.

**INGURUGIROAZ  
LANKIDETZA BEKA**

Arrasateko Udalak "Udalako Ingurugiro Eskola"n aritzeko beka bat eskaintzen du.

Bekaren epea 1996ko urriaren 14tik 1997ko ekainaren 30a artekoa izango da.

Eskabideak udaletxean (Hezkuntza Saila) aurkeztu daitezke urriaren 7a arte.

Informazio gehiago udaletxeko Hezkuntza Sailean jaso daiteke.



ARRASATEKO UDALA

**HIES EKIMENA**

Astelehen, astearte eta ostiral 5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

**TTUKUN**

Fotokopiak  
Enkuademazioak  
Koloretan fotokopiak  
Planoen erreprodukzioak  
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE  
Tfnoa: 79 46 62

**Udalarekin hitzarmena sinatu**

Asteazken arratsaldean Harreman, Komite Internazionalista eta Manos Unidas taldeek hitzarmena sinatu zuten Arrasateko Udalarekin. Hirugarren munduari laguntzeko hiru taldeek aurkeztu dituzten proiektuak Udalak diruz lagunduko dituelako izenpetu dute hitzarmena. Dirulaguntza jasotzeaz gain, herrian sentsibilizazio kanpainak aurrera eramán beharko dituzte hiru taldeek.

**Albina Madinabeitiari agurra**

Joan den ostegunean Albina Madinabeitiaren aldeko hileta elizkizuna egin zen San Juan Parrokian. Hileta hasi baino lehen, Juan Arzamendiren zuzendaritzapean Arrasate Musikaleko musikari batzuk kanta bat eskaini zioten Albinari. Bibolinjole ezaguna irailaren 18an hil zen 87 urte zituela. Azken urteetan Arrasate Musikaleko iralasia izan zen.



**Erasoa Garibaiko Kutxaren kontra**

Joan den zapatuan, gaueko 11ak inguruan, Garibai kalean Kutxak duen bulegoa erasotu zuten barrura molo-tov koktelak jaurtikiz. Zubillagako suhiltzaileek bzikor itzali zuten sua, baina bulegoa kiskalita geratu zen eta aparailu informatikoak hondatuta kearen ondorioz. Albistea idazterako orduan kalteak zenbatekoak izan ziren zehaztuta ez bazegoen ere, bulego berria eraiki beharko denez handiak izango direla pentsa daiteke.

Zapatu gauean, gainera, su eman zioten Biteri kaleko edukiontzi bati.

**Yantzi eta Galparsoro gogoan**

Asteartean Gurutze Yantzi eta Xabi Galparsoro hil zirela hiru urte bete zirenez, "Hemen eta orain torturatzen da" lemapean manifestazioa egin zen

Arrasaten. Gestorak deitu zuen manifestazio enkartelada egin ostean hasi zen, eta hainbat herritarrek parte hartu zuen. Gaur, ostiralean, egingo den plenora joateko deialdia egin zen manifestazioaren hasieran.

**Kontzertua Legutianon**

Aschero sistemaren bidez Arrasate Musikalen musika ikasten ari diren ikasleek kontzertua eskaini zuten Legutianon. Sistema berezi honen helburua kolore, zerbaki eta bolumen bidez musika irakastea da. Arrasate Musikalen hainbat atzeratu ari da sistema hori jarraitzen Jose Ramon Bitoriaren laguntzarekin.

Bitoriak esan zuenez, ikasleek aurrerapen handiak egin dituzte eta aurrera begira orkestra txiki bat osatzea pentsatu dute.

JAIOZAK
• Cristian Ezkurra Rodriguez. Irailaren 14an.
EZKONTZAK
• Jesus Agirre Unamuno eta Maria Lurdes Uribarren Rodriguez. Irailaren 18an. Zibilez.
HILDAKOAK
• Fermína Barrena Inda. Irailaren 14an. 86 urte.
• Haritz Etxebarria Ezpeleta. 15ean. 23 urte.
• Domingo Bereziartua Beaskoetxea. 18an. 77 urte.
• Albina Madinabeitia Arizaga. 18an. 87 urte.

*Baster-alde*

*Jatetxea*

**Denboraldiko platerak, giro onenean**

Galartza auzoa ARETXABALETIA

Tfnoa: (943) 79 24 58


**MONTTE®**

- ESKOLARAKO BEHAR DUZUN DENA
- INFORMATIKA
- IKUSENTZUTEZKOAK
- BULEGO ALTZARIAK ETA TEKNOLOGI BERRIAK (ESO)
- LIBURUTEGIAK
- APALAK
- GORTINAK

**MONTTE ERANTZUN INTEGRALA**

Pablo Uranga, 1 • ARRASATE • Tfnoa. 79 38 22





Juanito Arzamendi \*

## Albina Madinabeitia

Irailaren 18an Albina Madinabeitia bibolinjole entzutetsua hil zen. Arrasaten jaiotakoa zen, 1909. urteko otsailaren 5ean. Nazariok, bere aitak, irakatsi zizkion bibolinaren lehen sekretu txoak. Alaba bakarra zen, gainontzeko bere sei anaiak oso gazterik hil ziren eta.

Zortzi urte zituela, Lehen Jaunartzeko jantzia soinean zeramala Eibarren kontzertu gogoangarri bat eskaini ondoren, Gipuzkoako Aldundiaren beka bati esker Bartzelonara joan eta bertako kontserbategian ikasiko zuen 5 urtez.

13 urte zituela Madrilgo kontserbategira joan zen, biolin ikasketak bertan bukatuz, beti ere lehen sariak lortuta. Era horretan ikasketen bukerako lehen saria lortu zuen, Sarasate Sari preziatuarekin batera 20 urte bete aurretik. 1930. urtean, bi aldiz jo zuen Erret Jauregian, bata Nicanor Zabaleta arpa-jole ezaguna-

rekin batera. Urte horietan bakarlari gisa kontzertu ugari eman zituen estatutako elkarte filarmoniko nagusietan. Gerra zibilaren ondoren, Aranbarri maixuak Bilboko Orkestra Sinfonikoaren partaide izateko gonbidapena luzatu zion. 1944. urtean, Joaquin Turina konposatzaile eta zuzendariaren eskariz, Madrilgo Orkestra Nazionalen sartu zen, lehen bibolinjole postuan, 1979. urtean jubilatu arte bete zuen postuan. Ataulfo Argenta sortutako Kamara Orkestrarekin, 1947. eta 1948. urteetan

.....

*“Munduko batuta ospetsuenen zuzendaritzapean lan egin zuen”*

kontzertu gogoangarriak eskaini zituen Arrasaten, Zerrajeraren ekimenez.

Munduko batuta ospetsuenen zuzendaritzapean lan egin zuen: Rubinstein, Schuricht, Celibidache, Ataulfo Argenta, Rafael Frübeck, Zubin Meta etab. Niri, Arrasate Musikaleko Orkestrako bere 13 urteko etapan eskaini zuen azken kontzertua zuzendu izanaren ohorea dagokit. Gehien miresten zuen zuzendaria Zubin Meta zen. Beragatik umore txarra eta karakter handia zuela esaten zuen. Gogoratzen zuen Granadako jaialdi batean oso gaizki pasatu zutela, zuzendariari esan baitzioten emazteak dibortzioa eskatu nahi ziola bere anaiarekin ezkontzeko. Eta Granadan ere, zuzendari berdinarekin, Listzen piano eta orkestrarako kontzertu batean asko sufritu zuten, pianojolea, Gary Cooperren suina bera, memoria arazo baten ondorioz galdu egin zenean. Zubin Metak orro egiten zuen.

1977. urtean Merito Zibilaren Ordeneko Damaren Lazo eman zioten (Andere Txit Prestu tratamenduaz). 1979. urtean jubilatu eta Arrasatera bueltatu zen, bere ibilbide musikari Akademian irakasle gisa eta Orkestra Sinfonikoa konzertino moduan jarraipena emanez. Bibolinjole bertutetsua zenez, soinuaz eta afinazioaz nabarmentzen zen. Horrela aholkatzen zituen bere ikasleak: ezkerreko eskua altzairuzkoa eta eskumakoa (arkua mugitzen duena) belusezkoa.

\* MUSIKARIA

## USTEAK USTE

### ALDE EGOTETIK ALDE EGITERA...

Euskararen normalkuntza eta irakaskuntzaren inguruan diharduten hainbat erakundek eskatuta Siadecok egin duen azterketaren arabera erdaldunek euskalduntzearen aldeko jarrera agertzen ei dute (20-39 urtekoen artean egindako azterketa da).

Egia esan ondorio hau ateratzeko erabili den galdeketa ez dut ezagutzen eta onartu behar dut, beraz, ausardia izan daitekeela datu hau falta izanda ere nire iritzia plazaratzea baina, hala eta guztiz ere, nik ikusten dudan errealitatea eta azterketa honek dioten artean alde handia ote dagoen beldur naiz.

Euskalduntzeko eta alfabetatzeko ditugun baldintzak kontuan izanda, beti iruditu izan zait horretan hasten den edozeinek izugarriko meritu duela, benetan gogorra baita, beste hainbat gauzari uko eginez, egunero egunero, norberaren lanaren gain eta norberaren aisialdiari kenduta gehiengotan, hainbat ordu ematea eginkizun honi. Baina guzti hori esanda ere, komentzitu nago Siadecoren azterketak dioena errealitatean isladatuko balitz eta dioen proportzioan isladatu ere, euskara jende gehiagorentzat izango litzatekeela komunikazio tresna eta gure kaleetan ere gehiago entzungo litzatekeela.

Denok egon gaitezke euskararen alde, mobilizazioak ikustea besterik ez dago, baina alde egotetik alde egitera (edo egitera soilik) urratsa ez da oraindik eman, inoiz emango ote den ere zalantzan nago. Dena den esperantza azken galtzen den gauza delako, burugorrrak garelako... horretan saiatzen jarraituko dugu. Portzierto, oraindik matrikulatzeko garaiz zabilza!!

AMAI JAUREGI-ARRABURU.



KLASE PARTIKULARRAK  
O.H.O.  
B.B.B.  
U.B.I.  
L.E.E.  
INJINERUTZA I.II.  
Unibertsitaterako sarbidea.

• KONTABILITATE OROKORRA  
• ATZERRITARRENTZAT GAZTELERA  
• INGELESEZKO IKASTAROAK ATZERRIAN

### MATRIKULA BARIK!

• MEKANOGRAFIA ORDENAGAILUZ  
• INFORMATIKA  
• OFIMATIKA  
Testu prozesatzailea  
Base datuak  
Kulkulu orriak

• PROGRAMAZIOA  
Qbasic  
Turbo Pascal  
Turbo C  
Dbase  
Cobol...

Gure erronka zure etorkizuna eratzea!

Garibai, 6 B • Tfnoa: 77 11 06 • ARRASATE



Senideak-eko kideak plenoa joango dira presoen Euskal Herriratzea eskatzeko.

## EB-ak Galindo pertsona non-grata izendatzea proposatu

Gipuzkoako beste udalerrri batzuetan egin duen moduan, Arrasaten ere Galindo generala pertsona non-grata izendatzea proposatuko dio Ezker Batuak plenoari. Ezusterik ez bada alderdi gehienak mozioaren alde azalduko dira, baina PSE-EE alderdiak aurreratu du aurka bozkatuko duela eta PPK ere seguruen berdina egingo du.

Gaur aztertuko den mozioan esaten denez, Galdindo aske izatea oso kezagarria da arrasatearrentzat, eta bakea lortzeko oztopo da. Gainera, Udalak arrasatear guztiak legearen aurrean berdinak izatea bermatu behar due-

la esaten da. EBaren mozioan CESIDen pape-  
rak ez emateko gobernuak hartu duen jarre-  
ra ere kritikatu da, eta erabaki hori alda-  
tzea eskatzen zaio gobernuari.

Bigarren mozio bat ere aztertuko da: Seni-  
deak-ek aurkeztutakoa. Orain dela urtebe-  
te plenoa presoak Euskal Herrira ekartze-  
aren alde azaldu zela, baina hori lortzeko ezer  
ez dela egin esaten da mozioan. Horrega-  
tik, berriz ere puntu horren alde azaltzea eska-  
tzen zaie alderdiei. Bestalde, espetxeen  
zuzendaritzari, Barne Sailari eta presoiei  
akordioaren berri ematea proposatzen da.

## Monumentu izendatu

Santa Agedako ospitale psikiatrikoa monumentu izendatu eta euskal kultura ondarearen inbentario orokorrean sartu du Eusko Jaur-laritzaren Kultura Sailak. Zehazki, Sagrado Corazón izeneko eraikina sartu dute inbentarioan.

Gaur egun ospital psi-kiatrikoa den eraikina 1825. urtean eraiki zen. Uda aldean bainuak hartzerantz etortzen ziren kanpotarrak Gesalibarrera eta eraikin horretan ostatu hartzen zuten. Horrez gain, 1897an Gobernuko presidentea izan zen Antonio Canovas del Castillo jauna bertan hil zutelako ere bada ezaguna. Hortik aurrera bainu etxeen gainbehera etorri eta ospitale bihurtu zen. Arrazoi historikoez gain, arki-tektura aldetik ere eraikina berezia delako izendatu dute monumentu.

Era berean, aurrean dituen lorategiak ere izendapenaren barruan geratu dira.

Monumentu izendatzeko prozesua orain dela hiru urte hasi zen, eta azkenean aurtengo uztailean sartu zen inbentarioan.



**DANKA**

multimedia

*Komunikazioan kontzeptu Berria*



**CD-ROM**



**INTERNET**

- Katalogo interaktiboak
- Formakuntza sistemak
- Informazio puntuak
- Liburu elektronikoak

- Diseinua Web orrietan
- Web korporatiboa
- Produktoen Web-a
- Web-en kokapena

"Enpresan Multimedia  
Aplikatzeko, oinarrizko Gida"  
DOHAINIK. ESKA EZAZU !!

Loramendi, 4 - SAIOLAN Zentruan -  
20.500 **ARRASATE** - Gipuzkoa -  
Tels.: 943 - 770500 / 790211  
Fax.: 943 - 795701  
Web: [www.danka.es](http://www.danka.es)  
e - mail: [danka@danka.es](mailto:danka@danka.es)

**Gure bezeroak:**

**DANONA, TAVEX ALGODONERA, FAGOR,  
ZTB, LANA, CAJA LABORAL, eta abar...**

DANKA multimedia INTERNET-ean dago ( [www.danka.es](http://www.danka.es) ). Eta zure enpresa ?



Sexualitatearen inguruan informazioa eta aholkularitza ematea izango du helburutzat.

## Sexualitateari buruzko zerbitzu berria Arrasaten

Sexualitateari buruzko informazioa eta aholkularitza emango duen zerbitzua antolatzeke asmoa ez da berria. Orain dela hiru urte hasi ziren Udalean hori lortzeko pausuak ematen, eta aurrean, Emakume Sailak eta Gazteria Sailak aurrekontuen kopuru bat zerbitzu horren antolaketarako uztea erabaki dute.

Blanka Jauregi, Gazteria Saileko teknikariaren berbetan, noiz edo noiz jendea joan izan da Gazte Bulegora sexualitateari buruzko informazio eske. Beraz, gizartearen gai horrekiko hutsuneak eta ezjakintasuna dagoelako pentsatu dute zerbitzua antolatzea.

Batez ere gazteei egongo da zuzenduta zerbitzu berria.

Asmoa, Garibai Etxean aholkularitza jartzea da baina hasiera batean ikastetxeetan zerbitzuaren berri emango da. Horrez gain, sentsibilizazio kanpainak eta hitzaldiak ere antolatuko dira. Hasieran astean lau orduz eskainiko da aholkularitza eta behar izanez gero, ondoren gehiago. Urrian zerbitzua lanean hastea espero da.

Gipuzkoako beste herri batzuetan Iruñan eta Hondarribian, adibidez, badute zerbitzu hori.

## Trefasaren azalpenak

Trefasak idatzia bidali du Udalera, ekainean Aramaio errekararen egin zuen isurketa-aren nondik norakoak azaltzeko. Idatzian esaten denez, tuberia apurtu zelako bota zuten errekararen azido kloridrikoa, eta beraz, nahi gabe egin zuten isurketa. Gainera, gutxi gorabehera 2.000 litro azido isuri zirela jakinarazi dute. Era berean, ingurugiroari ahalik eta kalte gutxien egiteko zein inbertsio egin dituzten ere azaldu dute idatzian. Azken urtean 250 inbertitu dituzte, besteak beste bi labe berri erosten. Aurrera begira, berria, depuragailua jartzeko asmoa dute.

## Mankomunitateko bilera

Asteazkenean hileroko junta egin zuen Mankomunitateak. Bilera horretan, zaborren gaiari irtenbidea emateko Diputazioak zaborrak Lapatxera bidaltzea erabaki duela jakinarazi zen. Horrez gain, datorren urterako Lanbide Heziketan zein ikastaro berri antolatzeko nahia dagoen azaldu zen.



## Parques y Jardines

**Parke eta lorategien sorkuntza.**

**Lorazaintzako mantenimendua orohar.**

**Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

# Ferixalekuaren desafektazioa eskatu beharko du berriro ere plenoak

Ferixalekuko patrimonioa Udalarena den arren, edifizioa Hezkuntza Sailarengatik afe-  
katuta dago, hau da, gaur egun Hezkuntza Sailak erabil dezake eraikina. Ferixalekuko obrak egin zirenean, berriz, Udalak obrak ordaindu zituen eta trukean Ferixalekuko patrimonioa Udalaren esku geratu zen. Horregatik, orain desafektazioa eskatu nahi da.

Orain dela hiru urte ere udalbatza desafektazioaren alde azaldu zen, baina eskola mapa egiten ari zirela argudiatuz, orduan Buesa sozialistak zuzentzen zuen sailak ez zuen eskaria onartu. Orain, Hezkuntza Saila-



Bigarren aldiz eskatu beharko da Ferixalekuaren desafektazioa.

ren buru denak, Iñaxio Oliverik, bigarren aldiz udalbatza horren alde azaltzea eskatu du. Bestalde, orain dela hiru urte epaitegietara jo zuen Udalak, baina sententzia ezagutu

baino lehenago akordio batera heldu nahi da Hezkuntza Sailarekin.

Gai bera aztertzeko aurrez egin zen plenoan alderdi guztiak desafektazioaren alde

azaldu ziren PSE-EE kenduta.

## Zerrajeran EBZa

Zerrajerako edifizio zentralen Enpresa Berritzaileen Zentroa jartzeko borondatea azaldu beharko du plenoak SPRIren eskariz.

Hasieran batean Musakolan eta ondoren Saiolanen joango zela uste bazen ere, azkenean Zerrajeraren orubean kokatuko da EBZa. Saiolanen tokirik ez dagoelako erabaki da kokalekuz aldatzea. Zerrajeraren edifizio zentrala saltzeko negoziazioak nahiko aurreratu daude UCEM Arrasate, SPRI eta Saiolanen artean, eta laster salmenta itxita egotea espero da.

# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

*Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura*

**Doktoreak:**  
**CRISTOBAL  
ESTOMBA  
GOMEZ  
MURGIENDO  
OTALORA  
RUIZ**



**Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18**

**ATZO:**



**GAUR...**




Opil  
Okindegia

**DONIBANE**



Maritxu  
egunean  
zure  
bokata  
edo pizza  
250  
pta.gatik  
prest  
izango  
dugu!

**Zatoz ogiaren boutique-ra  
asteazkenean, urriaren 2an,  
arratsaldeko 7etan gure  
produktu eskaintza zabala  
dastatzera!**



**DONIBANE**

Inazio Zuloaga, 2  
Tfnoa: 79 80 50  
ARRASATE



## Harpidedun: berritu edo oparitu harpidetza!




Arrasatetik kanpo ARRASATE PRESS jasotzen dutenentzat. Arrasatetik kanpokoentzat ARRASATE PRESS oparitu nahi dutenentzat.

Gure kontu korrontean 3.000 ptako diru sarrera egin dezakezu **urriak 15a baino lehen** kontu korronte zerbaki hauetako batean:

- KUTXA 001026694.8 (Portaloiko bulegoa).
- EUSKADIKO KUTXA 001.002.7600 (Iturriotz kalekoa).

Ingresoa egitean garbi adierazi, mesedez, aldizkaria zeinen izenean jaso behar den.

ARRASATE PRESS atzerrian bizi den norbaiti bidali nahi badiozu zatoz gure bulegoetara eta bertan informatuko zaitugu.

 **77 08 15**

Azoka Kalea, 1 • ARRASATE



**Eusko Alkartasunaren X. urteurrena ospatzeko hainbat ekintza antolatu zen Lizarran. Arrasateetik goizean autobus bat joan eta ilunkara arte bertan egon ziren jaialdiko ekitaldi desberdinetan parte hartzen. Batzuek zezen mekanikoan ederto pasatzeko aukera ere aurkitu zuten. Bestela Aitor Urizar ikustea baino ez dago.**



**Joseba Vitoriano eta M<sup>o</sup> Jose Benito** Arrasateko epaitegian ezkondu ziren uztailean. Zorionak!

EFELDE



**Garagartzako bizilagunek** San Migel jaiak hasi baino asteburu bat lehenago bidaia bat egiteko ohitura dute. Asteburu honetan beraz, bi plazako autobus dotore baten sartu eta Errioxara egin dute txangoa. Najera eta San Millan de la Cogolla bisitatu ondoren, Villanuevako bodega batera joan ziren. Bertan ondo jan eta hobeto edan eta gero, denetik egin zutela jakin izan dugu. Garagartzako hauekin ezin urruti joan!



**Izar Loiti** arrasatearrak eta **Saioa Etxebarria** atxabal-tarrak omenaldi hunkigarria eta beroa jaso zuten zapatuan. Izar eta Saioa Mondra emakume taldeko jokalariek izan dira hainbat urtetan eta aurten arrazoi desberdinak bultzatuta utzi egin diote jokatzeari. Gainontzeko tal-

dekideek beraz, Bizkerra taldearen kontra jokatuak neurketan eman zieten azken agurra. Bi protagonistek fraka motzak eta futbolista botak jantziko ez dituzten arren, hemendik aurrera ere emakumeen taldeko jarraitzaile sutsuak izango direla esan digute.

**Lore**  
Lurrindegia

Olarte kalaa, 10 ARRASATE  
Tfnoa: 79 52 50

*Casa Ceciaga*

**MARITXU KAJOI EGUNERAKO:**


- Maritxurako bereziki ekarritako oihal eta osagarri ugari aukeran.
- Zeure gustoko soinekua egingo dizugu dotore joan zaitezten.

Maalako Errabala, 3 • ARRASATE • Tfnoa/Faxa: 79 12 62

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa

**M**  
**ARENAZA**

Bizkai, 1 ARETXABAleta  
Tfnoa: 79 08 07



Urtero moduan Ardi Txakurren Nazioarteko Txapelketa burutu zen Oñatin domekan, aurten 37. edizioa. Arrasatek izan zuen ordezkaritza, **Jose Mari Plazaola Nere** bere txakurrarekin joan

eta bigarren postua eskuratuta bueltatu zen. Txapelduna berriz, Kataluinako Jordi Muxac izan zen *Culoma* txakurrarekin. Plazaolak bigarrena izanda ere, **Alfredo Landa** aktorearen zorionak jaso zituen.



**Begira zelako perretxiko handia aurkitu zuten Mari Karmen Gorosabelek eta bere alabak, Nerea Baenak, Zubillaga aldean. Perretxikoarekin zer egingo zuten esan beharrik ez dago, ezta? On egin!**

## IZEN PROPIOAK

● **Itxaro Artola** 27 urteko arrasatearra AEDko sentsibilizazio eta gazte arloko arduradun berria da. Itxarok kazetaritza ikasi zuen Leioan eta Esther Apaolaza ordezkatu du.

## Kilometroak 96 Lehiaketa

Kilometroen eguna iritsi artean, astero zozketatuko ditugu 2.000 pta.ko hiru agiri zirkuitoan bertan erabili ahal izateko. Aste honetako irabazleak dira:

- **Maritxu Kostana.**
- **Xabier Alzelai.**
- **Gorka Bergaretxe.**

Zorionak hirurei eta gainontzekoei animo eta ea aste honetan aurkitzen duzuen Kilometroetako anagramatxo ezkutua!

## ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa  
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 98 94



## Pavimentos AGR

EGURREZKO AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak  
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak  
Lehioak • Ateak  
Eskailerak • Armairu enpotratuak  
Eta abar  
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta almazena:

Kale Txiki, 3 - behea  
Tfnoa: 77 11 20  
Faxa: 77 11 20  
ARRASATE

## ● Txitxinpe ●

Berezitasunak:


Kafea, ardoa, urdaitegia,  
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

## ANBOTO BODEGA

*Auzo giro jatorra!*

Anboto, 1 behea  
Tfnoa: 77 09 15 ARRASATE



## IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE



Bonaventure • Diesel  
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 11 72



**Ventanas  
San Miguelekin...  
Denean irabaziko  
duzu.**

**Erosotasunean  
irabaziko duzu.**

**Aurrezpenean  
eta energian  
irabaziko duzu.**

**Isolamenduan  
irabaziko duzu.**

**Konfortean  
irabaziko duzu.**



# **VENTANAS SAN MIGUEL**



**Iturriotz, 24 ■ ARRASATE  
Tfnoa: 79 78 10**



● *Jesus Mari Villar*

# Chernobilekin elkartasun lanean

**Normalean lau izaten dira etxean: bera, emaztea eta euren bi semeak. Aurtengo udaran, baina, bat gehiago izan da Villartarren familian, Ukrainatik etorritako Sasha izeneko neskatila. Chernobil elkartearen bidez etorri zen Jesus Mari Villarren etxean 40 egun ahalik eta ondoen pasatzeko.**

**- Nola sartu zinen abentura honetan?**

- Chernobilgoaren ondorioz radioaktibitatez kutsatutako Ukrainiako ume talde bat Euskal Herrira etorriko zela eta egonaldia egiteko bertako familien bila zebiltzala esan zuten irratian apirila aldera. Etxekoek hitzegin eta norbait ekartzea erabaki genuen, ideia ona iruditu zitzaigun. Telefono zenbaki batera deitu ondoren bilera baterako gonbidapena egin ziguten. Lehen bileran hartan Chernobil Elkarteak hiru partaide izan ziren hizlari, asmoa azalduz, helburuak zeintzuk ziren esanez, zenbat diru beharko zen etab. Bi baldintza besterik ez ziren eskatzen: bikote finkoa izatea eta lan finkoa edukitzea.

Izena eman genuen eta itxaroteru. Beranduago gutun bat bidali ziguten, gurera nor

etorriko zen esanez. Guk ez genuen egin, baina nahiaz gero bazegoen mutila edo neska apartatzeko aukera.

**- Eta Sasha etorri zen...**


- Bai 13 urteko neskatila aparta, jatorra, ondo hezitakoa, kultura handikoa... baina radioaktibitatez kutsatuta. Segituan ohitu zen hemengo bizimodura, hirugarren egunerako hemengo neska talde batekin irtetzen zen, ingelesez ulertzen zuten elkar. Janariek eta ez du arazorik izan. Hori bai, gehien arraina gustatu zaio, ia egunero jaten zuen. Lentejarik ez zuen jaten, Ukrainian oi loei ematen zaie eta.

**- Agur esateko ordua triste izango zen.**

- Bai. Ez zuen aldetzerik nahi. Bera maleta batekin etorri zen eta bostekin bueltatu. Izan ere, Arrasateko jende eta dendari askok lagundu digu honetan, arropa emanez etab.

**- Ekintzak polita ematen du, elkartasunez betetakoa... baina ez da motz geratzen?**

- San Juanen inguruan bukatzen dituzte ikasketak eta horregatik etortzen dira udaran, ikasturtea amaituta. Nire ustez, 40 eguneko egonaldia ondo etortzen bazaie gehiagokoa hobea izan daiteke.



Norbera denbora horretan ume bat edukitzeko prest badago gehiago ere lasai egon daiteke, gainera oso gauza gutxiarekin konformatzen dira.

**- Zenbat diru behar da?**

- Chernobil Elkarteak berria da, urtarrila aldera eratu zen. Izen hori jarri zitzaion ezagunagoa delako, baina beste antzerako egoera baten aurrean ere erantzungo luke. Honelako elkarte gehienak bezala, hasieran ez dute dirurik izaten eta bidaiarena aurrera eramateko Jaurlaritzara jo zen. Han ez zen gaizki ikusi asmoa, baina nolabait elkarteak bere aldetik ere zerbait jarri beharko zuela aipatu zen. Hortaz, urteko 6.000 pezetako kuota jartzea erabaki genuen. 90 lagunek jarri genuen diru hori, eta horrek esan nahi du

bateren batzuk umeak hartu dituztela, baina bazkide izan barik. Aurrera begira gure nahia guztiak bazkide egite izango litzateke, baina ikusi egin behar.

**- Gainera orain elkarteak koordinatzaile zaitugu, ezta?**

- Ekimenak Deba Garaian oihartzunik izan ez zuenez aireportuan bertan egon ginen hitzegiten, ea zer egin genezakeen horri buelta emateko. Joseba Ugalderekin, zinegotziarekin hitzegin nuen. Aurrera begira taldea aurkezteko plangintza-zirriborro bat egin genuen elkarrekin, eta elkarteak arduradunekin ere egon ginen beste egun batean. Josebak aipatu zien honelako talde batek Gipuzkoan norbait beharko zuela, eta beste barik hantxe harrapatu ninduten. Azaroan aurkezpene egiteko asmoa dugu Arrasaten, ea 97rako jende piloak biltzea lortzen dugun. Nire asmoa datorren urtean Arrasatera 20 lagunetik gora ekartzea izango litzateke, behintzat horretan saiatu behar dut.

● **“40 eguneko egonaldia ondo etortzen bazaie gehiagokoa hobea izan daitekeela uste dut”.**

# Euskalan

## Lan munduan euskararen presentzia bultzatzeko proiektua

Itxaro Zubillaga

**Gizartean euskarak izan duen bilakaera nabarmena izan da azken urteotan. Klean, instituzio publikoetan, ikastetxeetan aurrerapauso handiak eman dira euskarak bere presentzia eta garrantzia izan dezan. Orain berriz, enpresetan euskararen aldeko jarrera areagotu eta sendotzeko beste urrats bat eman da: Euskalan.**



Batzorde sortzaileko kideak sarri bildu dira proiektua zehazteko.

**A**ED elkarteak orain dela hamar urte enpresetan euskararekiko sensibilizazioa bultzatzeko Euskalan taldea sortu zuen. Bere jaiotzetik gaur arte inguruko lantegietan euskararen presentzia zabaltzeko egin du lan AEDko Euskalan taldeak. Orain berriz, eta batez ere hainbat lantegietako euskararen erabilpena euren enpresetan zabaltzeko asmo zabalera erakutsi dutelako, beste Euskalan bat sortzeko ideia ateratu da. Euskalan berria elkarte moduan egituratu dute eta izaera independentea izango du. Euskalan elkarteak sortu bada ere, AEDk gaur bezala lanean jarraituko du alfabetatze ikastaroak eta beste zenbait ekintza antolatuz, euskarak enpresetan eragin zuzena izan dezan. Hemenetik aurrera beraz, bi talde


egongo dira; batetik AEDko Euskalan taldea eta bestetik enpresetako hainbat ordezkari AEDren laguntzarekin sortu duten Euskalan elkarteak.

Euskalan elkarteak urtarrilean hasi ziren proiektua lantzen eta oinarriak finkatzen. Hilabete hauetan Esther Apaolazak, AEDko ordezkariak esan duen bezala garbi ikusi dute euskararen erabilera normalizatzeak, euskararen aldeko mugimendua pizteak eta bizkortzeak izan behar duela egin-kizun nagusia. "Euskara esparru guztietara hedatzea nahi dugu idatzizko, ahozko, kanpoko zein barruko harremanetan eta baita komunikazio formal eta informalean ere". Helburu hauek lortu ahal iza-

teko lantegietako langileekin egin beharko dute lan sakona "langile euskaldun euskalzalea bildu beharko dugu, baita euskararen aldeko jarrera dutenak ere. Indar egonkor eta iraunkorra lortu behar da euskararen alde".

Une honetan Euskalane-koek enpresa bakoitzean dagoen egoera gertutik aztertu beharko dute euren asmo eta helburuak gauzatu daitezkeen, eman beharreko urratsak zehazteko. "Inguruko enpresetan euskararekiko oso egoera desberdinak daude. Batzutan euskara batzordeak osatuta daude eta maiztasun handiz ekintza bereziak gartzen dituzte, euskarazko ikastaroak eskaini, boletinak kaleratu, itzulpenak egin... Euskalane-ko batzorde horiek


elikatzeko egingizuna bereganatu beharko du, ideia berriak sortu eta horiek gauzatzeko lagundu. Euskara batzorderik ez dagoen enpresetan berriz, hauek sortzeko ahalegina egingo da". Bestalde, lan munduan euskara sustatzeko dauden aukerei



buruzko informazioa zabaldu eta aurrera eramaten laguntzea eta hizkuntz aholkularitza eskaintzea ere elkarre berriaren egin beharrekoen artean sartuko dira.

## HELBURUAK ZEHATZ MEHATZ

Euskalaneek beraz lau helburu finko ezarri ditu bide berriari ekiteko. Lehenik eta behin enpresetako langile euskalzaleak bildu. Enpresetan zoritxarrez gaztelania da komunikatzeko erabiltzen den hizkuntza bakarra. Eskolan euskarazko heziketa jaso duten gazteek lan munduan integratzean mekanismo eta estrategiak gaztelaniaz dituzte. Hori aldatzeko enpresa barruko lana egin beharko du elkarte berriak. Beste helburu bat euskararekiko sentsibilizazioa sustatzea izango da, aipatutako euskara batzordeez baliatuta. Urrats hauek ematen dituzten neurrian oso garrantzitsua ikusten dute gaurdainoko esperientziei buruzko informazioa zabaltea. Azkenik, ekintza guztiak koordinatu beharko ditu euskararen aldeko ekintzak aurreikusi, aztertu, aholkatu eta bidean jartzeko. Euskalaneek lehen pausoak Deba Garaian emango dituen arren, epe luzera Euskal Herriko lantegietara iritsi nahiko luke.



Lan mundua euskalduntzeko proiektua izango da Euskalan.

**Urriaren 9an egingo du Euskalaneek bere batzar orokorra Amaia antzokian. Proiektuaren berri eman eta bazkideak lortzen saiatuko dira.**

### BAZKIDEEN PARTE HARTZEA

Euskararen aldeko elkarretea bazkideez osatuko da. Bazkide horiek dena dela ez dute dirurik ordainduko. Bi helburu betetzen saiatu beharko dira. "Langileei enpresetan euskara erabiltzea eskatuko zaie ahozko nahiz idatzizko harremanetan eta bestetik euskararen aldeko dinamika piztu beharko dute lantokian, euskara batzordeetan parte hartuz, ekintza bereziak abian jarritz eta erabilera planak garatuz".

### INGURUKO ENPRESETAN ESPERIENTZIAK

Euskalan elkarretea urritik aurrera jarriko du abian proiektu berria. Dena dela, ekimen hori ez da aintzindari izango Euskal herriko enpresetan. Izan ere, Antzuolako Elay, Beasaingo CAF eta Arrasateko Ikerlan enpresetan esate baterako lantegiarekin zer ikusia duen guztia euskalduntzeko plan berriak martxan dituzte dagoeneko. Euren kabuz eta hainbat erakunderekin laguntzaz sortutako eki-

menak izan arren, sortu zirenetik gaurdaino emaitza positiboak lortu dituztela aipatu behar. Bestalde une honetan Fagor Ederlan enpresak beste proiektu bat du eskuartean, Eskoriatzako enpresan euskararen erabilera bultzatzeko.

### BILERA GARRANTZITSUA URRIAREN 9AN

Elkarte berri honen asmoa gauzatzeko urriaren 9an zita garrantzitsua izango dute Deba Garaiko langile euskalzale guztiek. Amaia antzokian arratsaldeko 7etan batzar sortzailea egingo da elkartearen berri zabaltzeko. Euskalaneek txiki utzi nahi dute antzokia horrek proiektu berriak arrakasta izan dela esan nahiko lukeelako. Beraz langile guztiei gonbitea luzatzen diete bertara joan eta zuzeneko informazioa jaso dezaten. Hala ere, bilera aurretik inguruko enpresetako langileei informazio orokorra ematen saiatuko dira, kalera duten triptikoen bidez.

Euskalan proiektua beraz, euskara maite eta bere alde egin nahi duten langile guztientzat dago zuzenduta.

**EUSKALAN**


# Urbina Maltzaga taldea 96-97 denboraldian

Arrasate saskibaloitza taldeak ilusioz eta bi helburu zehatzekin eman go dio hasiera 96-97 denboraldia-ri. Urbina Maltzagak hirugarren urtea beteko du EBA ligan eta maila horretan sendotzea izango da aurtengo asmoetariko bat. Bestalde, azken urteotan egin duten sei milioiko defizita estaltzen ere saiatuko dira. Lehen taldea 11 jokalarik osatuko dute eta gaztetasuna izango da ezagurri nagusia. Fitxaketei dagokie-

nez, lau aurpegi berri izango dira: Jon Ibarrola nafarra, Sergio Galan Badalonako gaztea, Eneko Izkara bizkaitarra eta Moises Michael Dominikar Errepublikako atzerritar berria. Moisesek 21 urte ditu, 2,02 altuera eta pibot postuan jokatzen du. Atzerritararen etorrera arazo burokratikoengatik atzeratu den arren, hemendik hamabost egunetara Arrasaten egotea espero dute Urbina Maltzagako ordezkariek



**German Monge**  
30 urte  
Entrenatzailea,  
bilbotarra.



**Iñaki Gonzalez**  
35 urte  
2. entrenatzailea,  
arrasatearra.



**Iñaki Arrue**  
29 urte  
2,01 altuera,  
pibota,  
gasteiztarra.



**Ander Mallabiabarrena**  
19 urte  
2,02 altuera,  
pibota, arrasatearra.




**Sergio Galan**  
20 urte  
2,05 altuera,  
pibota,  
badalonarra.




**Jorge Fernandez**  
24 urte  
1,90 altuera,  
eskolta,  
arrasatearra.



**Iago Gamarra**  
19 urte  
1,90 altuera,  
eskolta,  
atxabaltarra.



**Roberto Gutierrez**  
17 urte  
1,90 altuera,  
eskolta,  
atxabaltarra.



**Andres Gutierrez**  
22 urte  
1,94 altuera,  
hegalekoa,  
atxabaltarra.



**Jose Luis Ortun**  
19 urte  
2 metro,  
hegalekoa,  
gasteiztarra.



**Jon Ibarrola**  
24 urte  
1,99 altuera,  
hegalekoa,  
iruñearra.



**Eneko Izkara**  
23 urte  
1,85 altuera,  
basea,  
bilbotarra.

**ONGI ETORRI,  
konpainia onean  
egoteak badu  
abantailik.**



- ☛ Bizitza
- ☛ Etxebizitza
- ☛ Autoa
- ☛ Etabar

Otalora Lizentziatua, 5

20.500 ARRASATE

☎: 79 70 67

# Roberto Madinabeitia memoriala Iturripen

Roberto Madinabeitia-ren omenez hainbat ekintza antolatu dute Arrasate eskubaloi taldekoek zapatu honetarako. Roberto eskubaloi taldeko jokalaria eta zuzendaritza batzordeko partaide izan zen. Memoriala arratsaldeko 4etan hasiko da. Ordu horretan kadeteek Bergara taldearen kontra neurtuko dituzte indarrak. 5.15etan bigarren neurtuko da Lehen territoriala eta Urolaren artean. Norgehiagoka hori bukatuta, 6.30ak aldera omenaldiko ekitaldia hasiko da eta bertan Robertoren senitartekoei oroigarri bat jasoko dute. Arratsaldeko 7etan berri, lehen mailako taldea eta Tra-



Roberto Madinabeitia omenduko dute zapatuan.

pagaran izango dira aurrez aurre. Partidu guztiak bukatu ondoren, sari banaketa egingo da. Bestalde lehen mailakoek beste norgehiagoka bat izango dute dome-

kan. Arrasatearren aurkaria Bilboko Sercoin taldea izango da. Talde honen gainean esan behar da arrasatearren maila berean jokatuko duela aurten.

## Pilota partiduak Iturripen

Arrasateko pilotariet taldeen arteko Gipuzkoako Txapelketako neurketak jokatuko dituzte zapatuan goizeko 11etatik aurrera Iturripen. Kadetetan Dominguez II eta Etxeandia pilotariet arerioak bergararrak izango dira. Juniorretan eskuz banaka Arrasatek Zumarragako Beloki taldearen kontra neurtuko ditu indarrak. Arrasateko ordezkaria Zugasti izango da. Juniorretan baina eskuz binaka Etxeberriak eta Rubiak Añorgan izango dute zita eta seniorrek Donostian. Seniorretan arrasatearren izenean Mujikak eta Kortak jokatuko dute.

## Jubenil mailako Txirrindulari lasterketa

Jubenil mailako XV. San Migel txirrindulari lasterketa burutuko da Aretxabaletan. Lasterketak 83 kilometro izango ditu eta goizeko 10.30etan hasiko da. Aretxabaletik Epelera joan, Sara igo eta gero Arrasatera jeitsi eta hortik Eskoriatzako bidea hartuko dute. Ibilbide hori hiru bider osatu beharko dute txirrindularietan. Helmuga Durana Kanean egongo da eta froga 12.30ak aldera bukatuko da. Bertan besteak beste Dorletako Ama taldeko txirrindulariak izango dira. Lasterketa UDA kirol elkarteak antolatu du.

## Mondra eta Oiartzun nor baino nor Atxabalpen

Preferente mailako Mondra eta Oiartzun izango dira aurrez aurre domekan Atxabalpen. Neurketak arratsaldeko 5etan hasiko da. Oiartzunek gaur arte ez du garaipenik ezagutu eta lehena lortzeko irrikan etorriko da. Mondra berriz, azken ihardunaldian jokatutako porrotaren ondoren, jarraitzaileen aurrean itxura hobea erakusteko asmoz zelairatuko da. Jesus Mari

Barrutiabengoa entrenatzaileak hainbat baja izango du hala ere, talde orekatuena ateratzen saiatu beharko da. Aipatutako neurketek gain, beste batzuk ere jokatuko dira Atxabalpen. Lehen kadeteek Union Txiki taldea izango dute aurkari zapatuan 4etan. Bigarren kadeteek Bergararen kontra neurtuko dituzte indarrak domekan 12etan eta Infantilen

arerioa UDA taldea izango da domekan goizeko 10etan. Bestalde esan behar da aurten ere Mondrako taldeek Astore-Arrasate Kirolak eskainitako arropak jantziko dituztela. Astorek arropak eta futboleko aritzeko materiala ematen dio Mondra futbol elkarteari. Aurten gainera Astore-Arrasate Kirolak marka jantziko duten bostgarren urtea da.

## ARGI PLASTIC

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, ateak, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik**



Tailerra eta Bulegoa: Zigarrola, 1-8 pabilioa • Tfnoa: 77 11 30 ARRASATE

## Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea

HAURDUNALDIA  
AMNIOZENTESIA  
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA  
BASEKTOMIA  
BULAR PATOLOGIA

**SAN MARTIN OSASUNDEGIA**  
Ramón M. Lili, 2 BERGARA  
Tfnoak: 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

# Iskanbila musika taldearen lan berria abendurako kalean

Iskanbila taldeak, duela bi aste istripuz hil zen Haritz Etxeberriaren taldeak, CDa grabatu zuen abuztuaren hasieran Shot! grabaketa estudioan. Ez da hau Iskanbila taldearen lehen lana, 1992an maketa grabatu zuen eta. Dena dela, laister kalean izango den CDa askoz landuagoa eta abesti gehiagoz osatutakoa dela esaten du Xabier Lasagabasterrek, taldeko bateriak.

Iskanbila taldea, duela 6 urte abestiak konposatzen eta kontzertuak ematen hasi zenez, ezaguna da herrian.

## Iskanbilaren jaiotza

Musika talde bat osatzeko gogoia aspalditik bazuten ere, Iskanbilakoei 1990. urtea jartzen dute taldearen jaiotzedata moduan: "Aspaldi genuen talde bat osatzeko gogoia baina 90ean hartu genuen seriooki idea. Urte horretan San Juan jaietan txozna jarri eta ateratako diruarekin musika ekipoa osatu genuen. Bagenuen baxua eta anplifikadorea, baina beste bi gitarrendako anplifikadoreak behar genituen, baita bateria ere. Txoznatik ateratakoaz guzti hori erosi eta depositoko lokaletan lanean hasi ginen. Horrela hasi zen Iskanbila taldearen historia". Garai hartan Iban Gonzalezek (baxua), Haritz Etxeberriak (ahotsa), Xabier Lasagabasterrek (bateria), Gotzon Biterik (gitarra) eta Asier Zabartek (baxua) osatzen zuten taldea.



Iskanbila taldekoak Shot! estudioan.

Handik bi urtera 6 abestiz osatutako lehen maketa grabatu zuten.

## CD berria estatutik kanpo

Urteak aurrera joan ahala, Iskanbila taldean aldaketa batzuk eman ziren: hasierako taldekide batzuk joan eta berriak sartu ziren, horrela, orain arte Xabier Lasagabasterrek, Gotzon Biterik, Xabi Mancebok eta, Haritz Etxeberriak osatzen zuten taldea. Hala ere, egon diren aldaketak ez dira oztopo izan talde-

ak seriooki lanean jarraitzeko. 1992tik, lehen maketa grabatu zutenetik, josta su aritu dira doinu eta letra berriak eginez eta lan horren emaitza abuztuaren grabatu zuten CDa izan da. Maketa zaharrek bi abestik eta 10 berrik osatzen dute CDa eta Xabierrek azaltzen duenez, "alde handia dago maketako musikalitate kalitatearen eta oraingo CDaren artean. Lan asko egin dugu proiektu honetarako eta asko landu ditugu abestiak. Oso pozik geratu gara azken emaitzarekin". Iskanbila taldearen jarraitzaileek maketako abesti batzuk baino doinu *kañeroagoak* zein askoz lasaiagoak entzun ahal

izango dituzte lan berrian.

Disko konpaktoa azaroren azken egunetarako kalean egotea espero dute. Dena dela, ez dira eurak banaketaz arduratuko, Bartzelonako banatzaile bat baizik. CDa Estatuan eta Estatutik kanpo banatuko da. Iskanbilakoei euren lana ahalik eta urrutien heltzea espero dutela diote.

## Haritz omenaldi kontzertua

Iskanbilak omenaldi kontzertua egin nahi dio Haritz. Dena dela, kontzertu horretan euren ez dutela joko esaten du Xabierrek: "Iskanbilak ez du joko, Haritz ez dago eta. Beraz, talde potenteren bat ekartzea gustatuko litzai-guke, horrela Haritz meredi duen omenaldia egingo dugu".

Taldearen etorkizunaz galdetzean, taldeak aurrera jarraituko duela azaltzen du Lasagabasterrek. Kantari berri bat topatzea nahi dute baina momentuz ez dute ezer zehaztu. Dударik gabe, Haritzen heriotzaren ondoren, taldeak une gogorra bizi du, "Haritz-enak jota utzi gaitu. Orain oso gustora geunden taldean, unerik onenean geundela esango nuke. Taldean oreka bat nabari zen eta oso ondo konpontzen ginen laurok. Hala ere, aurrera jarraitzeko asmoa daukagu" azaltzen du taldeko bateriak.

**beatriz**  
oinetakoak eta  
poltsak  
Erdiko kale, 11  
Tfnoa: 79 14 33  
ARRASATE

  
Zuri  
Garbiketak  
Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

**Plus Ultra**  
taberna  
Maalako Errabala, 17  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 20 57

Jon Balentziaga


# Pintura eta keramikak ikusgai Aita Mennin

Urriaren 3ra arte Aita Menniko emakume gaixoez egin dituzten pintura eta keramika lanak ikus daitezke Monterronen. Duela bost urtetik Jon Balentziaga bergarar gormutua izan dute irakasle eta honek oso begi onez ikusten ditu bai gaixoez egin dituzten lanak eta baita hauengan sortu den jarra positiboa.

— Urte batzuk daramatzazu Aita Mennin pintura klaseak ematen. Gero eta gaixo gehiago animatzen da parte hartzera?

— Orain dela bost urte hasi nintzen pintura eta keramika eskolak ematen eta hasieran 15 emakume baino ez zirela animatu esan behar dut. Orain berriz, eskolak bi taldetan banatu behar izan ditugu eta gainera laguntzailer bat hartu keramika eskolak emateko. Gaur egun 30 emakume ari dira keramika ikasten eta beste 30 pintura.

— Ze balorazio egiten duzu gaixoez egin dituzten lanen gainean?



— Balorazio oso ona egiten dut, ez bakarrik egin dituzten lanen gainean, baita euren jarrearen gainean ere. Klaseak hiru taldetan banatu genituen hasieratik: lehenengo taldean aurrez pintura ezagutza batzuk bazituztenak sartu genituen; bigarrenean, ezagutzarik izan ez arren, margotzea asko gustatzen zitzaien gaixoez eta hirugarrenean ezagutzarik ez eta ikas-

teko gogo handirik ere ez zutenak. Bost urte hauen ondoren gauzak asko aldatu dira: hirugarren taldeko emakumeengan pinturarekiko afizioa eta besteekiko konpetitibitatea sortu da, beraz, interes handia jartzen dute egiten dutenarekiko. Guzti hau oso positiboa da.

— Gormutua izanik, nola konpontzen zara gaixoez

komunikatzeko?

— Hasieran ez zidaten ezer ulertzen. Bi monitore nituen nirekin lagun ziezadaten, baina guztion artean eduki dugun pazientziari esker, gaur egun ondo elkar ulertzen dugu guztiok. Gainera, dagoeneko ez dut monitorerik behar. Klasea ikasle berririk etortzen bada eta honek urlertzen ez banau, denbora gehien daramaten gaixoez laguntzen didate.


— Zer esango zenieke herritarrei erakusketa ikustera joan daitezkeen?

— Egunkarietan iragartzen diren erakusketetara joateko ohitura daukagu, baina hau berezi samarra dela esango nieke. Lan onak ikus daitezke eta gainera ausnarketarako ere balio dezake erakusketak: Aita Menniko emakumeak gaixo egon arren, lan egin dezaketela eta emaitza oso positiboak lortu ditzaketela ikusiko du jendeak. Erakusketa ikustera jende asko joatea gustatuko litzaidake.


## LENIZ ALUMINIOAK

Eskatu aurrekontua doan eta konpromezurik gabe.


Bi orriko atea



Orri bateko atea: 73.000 pta.!!!



Bi orriko leihoa



Orri bateko leihoa: 54.000 pta.!!!

Leihoen neurria Lzure beharretara egokitzen dugu. Mota guztietako leihoak ditugu: poliuretanoa, aluminiua, apurketa termikoa...

Oharra: Prezio hauetan instalakuntza osoa sartzen da.

Erakusketa eta salmenta: Labeaga kalea, 21 • Tfnoa: 72 49 33 • Urretxu



G

erra ostean gaur baino entretenimendu gutxiago zegoen, eta besterik ezean, estimatuenetariko bat mendia zen. Argazkikoek domeka askotan izaten zuten mendia topaleku, motxila bizkarrean hartu eta egun pasa ederrak egiten zituzten.

Ezin izan dugu jakin,

argazkia non arraio egindakoa den, baina argi dago mendi bueltaren baten ateratakoa dela. Argazkian agertzen direnak honako hauek dira, ezkerretik eskumara eta zutita: **Josu Otadui**, **Ramon Heriz** (familia osoa hartu eta Venezuelara bizitzera joango zen, oso ondo jotzen ei zuen bere gitarra eta guzti), **Xanti Etxe-**

**berria Zurdo** pilotari ospetsua, eta **Jose Mari Lasagabaster**, bastoiaz dagoena. Makurtuta, berriz, eta eskuan panderoa duela nahiz eta sekula ez zaion horrelako zaletasunik ezagutu, **Fortunato Zeziaga**, eta bere ondoan **Pedro Sologaistoa Laso**. Ahaleginak egin arren, ume txoaren berririk ez dugu.

## CAMBRIDGE

EXAMINATIONS, CERTIFICATES & DIPLOMAS  
ENGLISH AS A FOREIGN LANGUAGE



University of Cambridge  
Local Examinations Syndicate

### MATRIKULAK:

**IRAILAREN 23tik URRIAREN 3ra**

#### AZTERKETAK ETA DATAK

F.C.E. (First Certificate English) .....Abenduak 7  
C.A.E. (Cambridge Advanced English) .....Abenduak 12  
C.P.E. (Cambridge Proficiency English) .....Abenduak 11

Azterketa "Eibar" Arma Eskolan izango da.

#### INFORMAZIOA ETA MATRIKULAK

Arrasate: PARLANCE .....77 06 83  
CIM-AHIZKE .....79 01 32

Bergara: ESPOLON SCHOOL OF ENGLISH .....76 03 53  
Durango: COMPUBIT ENGLISH INSTITUTE .....620 20 20  
Eibar: ANGLO-AMERICAN .....10 64 57  
INTERIDIOMAS .....12 10 03  
LINK IDIOMAS .....10 39 59  
UKITZE .....70 25 59  
Elgoibar: KEY ACADEMIA DE INGLES .....74 30 44  
KENSINGTON SCHOOL OF ENGLISH 74 02 36  
Ondarroa: HOWDY ACADEMY .....613 43 26  
Oñati: A & M SCHOOL OF ENGLISH .....71 61 37  
CIM-AHIZKE .....71 60 00

Cambridge Examinations Centre • Es-438



LABURRAK

**AEDko lehiaketa berriak**

AED elkarteak "Arrasate 96" lehiaketa sortaren barruan, 3 lehiaketa berri antolatu ditu: "Arrasateko Euskararen Testigantza", "Antzerkigintza" eta "Ikus-entzuzkoen Gidoigintza".


"Arrasateko Euskararen Testigantza" lehiaketa Arrasateko euskeran egindako magnetofoi grabaketa batean datza. Grabaketak gutxienez 12 minutuko eta gehienez 20ko iraupena izan beharko du. Gaia librea da. "Antzerkigintza" sailean burutzeko moduko antzezlanak aurkeztu behar da. Gaia librea da ere eta gutxienez 15 orrialdeko lana aurkeztu behar da. "Ikus-entzuzkoen gidoigintza" lehiaketan edozein irratsaio edo telesaio osatzeko gidoiak aurkeztu behar da. Edoizen gairi buruzko gidoiak aurkez daitezke eta 5-10 minutuko iraupena izan behar dute.

Lanak urriaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira AED elkartearen. Postaz ere bidali daitezke AED Elkar-tea, "Arrasate 96" Lehiaketak, Pablo Uranga, 4 beheka 20.500 Arrasate helbidera.

Z E R N A H I A G O ?

**Celsa Casales**

**Txuri-Beltz dendakoa**



- Noiz da zure urtebetetzea? Maiatzaren 22an.
- Lore bat? Papantza.
- Mendia ala hondartza? Mendia.
- Futbol jokalaria bat? Julen Guerrero.
- Arrasateko lekuri politena? Udala auzoa.
- Urrea ala zilarra? Urrea.
- Baduzu liburuak erosteko ohiturarik? Bai, batzutan erosten ditut.
- Kafe hutsa ala ebakia? Hutsa.
- Animalia bat? Zaldia.
- Abeslari bat? Fredy Mercury.
- Karta joku bat? Txintxona.
- Garagardo marka bat? San Miguel.
- Zinean ikusi duzun azken pelikula? Parque Jurásico.
- Zine zuzendari bat? Steven Spielberg.
- Janari bat? Marmitakoa.
- Baduzu gidatzeko karnetik? Bai.
- Noiz atera zenuen? 18 urte nituenean.
- Maiteminduta zaude? Bai.
- Zer egiten duzu denbora librean? Irakurri, pasiatu eta telebista ikusi.
- Bete bariko amets bat? Kanadara joatea.
- Telebistako programa bat? Expediente X eta Colombo telesailak gustatzen zaizkit.
- Non bizitzea gustatuko litzaizuke? Donostian.
- Nora idatzi duzu azken gutuna? "Ser Padres" aldizkarira.
- Non erosten duzu arropa? Arrasaten edo Gasteizen.



*Kalitate gorena leihoetan*

**LANTEGIA ETA ERAKUSKETA**

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

**elkarkom internet**

*Europako erakunde eta unibertsitate ospetsuenekin on-line kolaborazioak.*

**internet formakuntza**

Hasieratik, profesional eta enpresari mailetara.

- Didaktika profesionala.
- Talde murriztuak.
- RDSI konexioak.
- INTERNET teknologia berriak: kamarak, bideoa, musika, 3D, ftp, irc, plugin-ak, tele enplegua...

- Instalazio eta konexioak.
- Web orrialdeen egitea.
- Espazio birtualen alokairua.
- Internet consulting.
- Enpresendako zerbitzuak.

**Elkarkom internet**

Nafarroa 17, Arrasate  
Tfnoa: 71 20 30  
E-mail: [elkarkom@jet.es](mailto:elkarkom@jet.es)  
<http://www.elkarkom.com>



# ALTYNA LYRRINDEGIA

Maritxu Kajoi egunean  
zure muxuak  
salatu ez zaitzaten...

**COLOR  
PERSIT** L'ORÉAL

Maalako Errabala, 19  
Tfnoa: 79 14 23  
ARRASATE



## Kilometroa

30 musika talde, 10 kirol ezberdin,  
5 erakusketa, 5 jolas parke, pailazoak, bertsolariak,  
erraldoiak, aerobik, dantza saioak, ponyak, iturriak, taloak, sardinak,  
erroskillak, ogitaretekoak, patata prejituak, ollaskoak, bazkariak, lezpiak, sardanak, ...



Elgoibarko Ikastola



Ikastolen Elkartea

Banoa, Banixe

Euskaraz, bai horixe

• ESAERA •

*“Batzuek hari bat lotzen dute behatzen batean, zerbait gogoratu nahi dutenean. Beste batzuek lepoaren inguruan lotzen dute, ahantzi nahi dutenean”.*

NOEL CLARASOL

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7
8				9		
10						
11			12			13
14		15			16	
17						
18					19	

J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1. Torres Arrasateko aktorearen izena. 5. Euskararen Gaitasun Agiria. 8. Erraz mintzen den pertsona. 10. Udaltzain. 11. Alfabetoko hamazortzigarren letraren izena. 12. Txerri-solomoa Iparraldean. 14. Laga. 16. Jakturiaren jainko egiptoarra. 17. Urtearen boskarren hilabete. 18. Erori aditzaren infinitiboa. 19. Berba egin eta jateko zulo.

**Bertikalak** 1. Usoaren kume. 2. Neguko, neguari dagokiona. 3. Nekadura. 4. Italian jaio dena. 5. Zerbait egitea. 6. Jantzi eta bular arteko hutsune. 7. Argona. 9. Ikara, beldur. 13. Gaurko egunaren aurrekoa. 15. Arrazoi, zergati.

• SOLUZIOAK •

**Horizontalak:** 1. Unai, 5. EGA, 8. Sentikor, 10. Aguzail, 11. Ku, 12. Lunka, 14. Uzi, 16. Tot, 17. Matatz, 18. Eror, 19. Aho.  
**Bertikalak:** 1. Usakume, 2. Neguar, 3. Anu, 4. Italiar, 5. Ekintza, 6. Golko, 7. Ar, 9. Izu, 13. Atzo, 15. Zio.

**Etxe**




**Aundi**

Hotela\*\*

Jatetxea

Torreauzo, 9  
Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90  
OÑATI



*Gaur ez bada,  
bihar*

*ezkonduko*

*zera...*

*Etxe Aundin*

*zure zain*

*gaituzu.*


# ATBko programazio berria

## MONDRASPORT

**Aurkezleak: Itxaro Zubillaga eta Esti Loiti**

**Eguna: Astelehena 9.30etan**

Sortu zenetik gaur arte Mondrasport saioak izan duen arrakasta dela eta, Itxaro eta Esti kirol-saio berarekin datozkigu astelehenetan. Berrikuntza moduan berriz, herriko kirolari ohi bati buruzko erreportaia astelehenero. Jakina, "Porrie" ere jokuan egongo da.



buruzko mahainguruak zuzenduko ditu hainbat gonbidaturekin.

## KUKARATXA MOTEL

**Lantaldea: Unai Torres, Betirtze eta Agustin**

**Eguna: Ostegunetan 7.10etan eta 9.30etan**

Unai Torresek, Betirtzek eta Agustinek Kukaratxa Motel lehiaketa berpiztu dute. 9-14 urte arteko gazteei zuzendutako saio dibertigarri honetan, bi hirukotek hartuko dute parte eta froga zailak eta barregarriak gainditu beharko dituzte. Antzerkigintzak txoko berezia izango du lehiaketan.

## LOTSA BARIK

**Aurkezleak: Maier Uranga eta Nerea Barrutia**

**Eguna: Asteartea 9.30etan**

ATBko programazioaren berrikuntzetako bat dugu Lotsa Barik. Bi neska gazte eta saltserok dakarkigute programa dibertigarri hau. Maierrek eta Nereak asteartero Euskal Herriko pertsonaia ezagun bat "larrugorritan" utziko dute.



## ASTEBETE

**Eguna: Ostirala 9.30etan**

Arrasateko aktualitateak eskeintzen dituen gaiak sakonean aztertuko dira saio honetan. Erreportaiak, gonbidatuak, gai polemikoen inguruan kalean jasotako inpresioak... Iritziari ere atek zabalduko dizkiogu aurten Astebeten.

## KONTZERTUAK-ANTZERKIAK

**Eguna: Hilean behin asteazkenetan 9.30etan**

Herrira datozen ikuskizunak grabatu eta hilean behin horiek eskeiniko dira ATBn. Etxetik mugitu barik kultur ekitaldiez gozatzeko modu paregabea herriko telebistan bertan.

## NONZEBERRI

**Eguna: Hilean behin asteazkenetan 9.30etan**

Ezkontzak, afariak, moda, zilarrezko eta urrezko eztaiak, Arrasateko giroa... guzti hau eta beste mila kontu Nonzeberri saio berrian. Ezinbestekoa herritarren partaidetza, beraz, lagunekin afari bat egitera bazoaz edo ezkondu behar bazara, utzi lotsa alde batera eta harremanetan jarri ATBkin. Grabatutako irudiak oparituko zaizkizue, jakina, programan agertu eta gero!

## BERRIAK

**Eguna: Egutero 20.00, 20.30 eta 21.00etan**

**Aurkezleak: Maider Egues, Itxaro Zubillaga, Gorka Etxabe**

Herriko gertakizunen harian egoteko ezinbesteko zita betiko ordutegian. Egutero albistean artean, astelehenetan asteburuko kirolen laburpena Itxaro Zubillagaren eskutik; asteartetan herriko baserri bati buruzko erreportaia; asteazkenean azokara bisita; ostegunetan kaletarrei inkesta eta ostiraletan Gorka Etxabe, ATBko fitxaketa berriaren eskutik, asteburuko kirol neurketen aurrerapena.

## GURE OBJETIBOTIK

**Aurkezlea: Ion Iñaki Lasas**

**Eguna: Hilean behin asteazkenetan 9.00etan**

Hilean behin Ion Iñaki Lasak gizarte edota politika gaiak

**HAURTOKO A**  
Arrasate Pasealekua 4,  
Tfnoa: 79 14 90  
ARRASATE

**GOROSTI**  
Jatetxea  
MENUA • PLATER KONBINATUAK • KARTA  
(Eskola Politeknikoaren ondoan)  
Arimazuri Plaza • Tfnoa: 77 06 07 • ARRASATE

**Hilbera**  
**kafetegia**  
Uribarri Etorbidea  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 22 70



# erria martxan!

## ALKATEAREKIN BERBETAN

**Eguna: Hiruhilabetero**

**Aurkezlea: Mikel Irizar**

Herriaren pultsoa neurtzeko Arrasateko alkateari eginiko elkarriketa sakona hiruhilabetero.



## ERREPORTAIK

**Eguna: Urtarriletik aurrera asteartero**

Urtarriletik aurrera astean behin erreportai luzez osatutako programa ikusteko aukera izango duzue. Programa honetan era guztietako gaiak jorratuko dira, herriko kazetariak egindakoak, eta besteak beste bailara hobeto ezagutzeko aukera ere hor egongo da.

### Programazio Berria

Ordua	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
13.30	Albisteen Aurrerapena	Albisteen Aurrerapena	Albisteen Aurrerapena	Albisteen Aurrerapena	Albisteen Aurrerapena
13.35	Errepikapena	Errepikapena	Errepikapena	Errepikapena	Errepikapena
7.10	≈	≈	≈	Kukaratxa Motel	≈
8.00 8.30 9.00	Berriak	Berriak	Berriak	Berriak	Berriak
9.30	MondraSport	Lotsa Barik	Hilean behin Gure Objektibotik Nonzeberri Musika Kontzertuak Ikuskizun-Erakusketak	Kukaratxa Motel	Aste Bete

#### 27 Ostirala

20.00, 20.30 eta 21.00etan  
**Berriak**

#### 30 Astelehena

13.30etan  
**Albiste aurrerapena**  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
**Berriak**

21.30etan  
**Mondrasport**  
**Erreportaiak: Joxe Arriaran**  
**pilotari ohia**

#### 1 Asteartea

13.30etan  
**Albiste aurrerapena**  
13.35etan  
**Mondrasport errep.**  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
**Berriak**  
21.30etan  
**Lotsa Barik**  
**Gonbidatua: Joxean Sagastizabal**

#### 2 Asteazkena

13.30etan  
**Albiste aurrerapena**  
13.35etan  
**Lotsa Barik errep.**  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
**Berriak**  
21.30etan  
**ATBko programazio berriaren aurkezpena**

#### 3 Osteguna

13.30etan  
**Albiste aurrerapena**  
13.35etan  
**ATBko programazio berria errep.**  
19.10etan  
**Kukaratxa Motel**  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
**Berriak**  
21.30etan  
**Kukaratxa Motel**

#### 4 Ostirala

13.30etan  
**Albiste aurrerapena**  
13.35etan  
**Kukaratxa Motel errep.**  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
**Maritxu Kajoi informatibo berezia**

## Urriak 6, Kilometroak Elgoibarren

Eta egun hori iritsi artean ARRASATE PRESSEK jokutxo bat proposatu nahi dizuete: **Kilometroak 96ko logotipoa izkutatu dugu** aldizkariaren orrialde batean. Aurki ezazu, eta kupoitxoak bete adieraziz non dagoen. Asmatuz gero, Kilometroak 96k salmentan duen materiala zozketatuko dugu, trukean **2.000 pezetako balioa** duten agiriak emanez hain zuzen ere.

*Banoa, Banixe, Euskaraz, bai horixe!*



Izen-abizenak: .....

Telefonoa: .....

Zenbatgarren orrialdean dago logotipoa: .....

**ARRASATE PRESS**  
Azoka kalea, z/g  
20.00 ARRASATE

**Etxebizitzak**

- **Pisua salgai Uriburu kalean.** 80 m<sup>2</sup>. Berogailua, ganbara eta garajeaz. Tfnoak: 79 25 96 eta 79 9941.
- **Aretxabaletako erdialdean** garajea salgai. Tfnoa: 79 69 61.
- **Donostian 3 logelako etxebizitza** alokatu egingen da. Tfnoa: 21 97 50.
- **Pertsona bat behar da** Donostian pisua osatzeko. Egia auzoan. Tfnoak: 71 46 52 / 79 08 21.
- **Arrasateko gazte talde** bat gara eta lokal bila gabiltza. Edozein egoeratan. Tfnoa: 79 68 75.
- **Etxebizitza alokatzen da Bergaran.** Jantzita eta telefonoarekin. Tfnoa: 76 59 71.
- **Bilbon pisua osatzeko hiru lagun** behar dira. Tfnoa: (94) 416 93 06. Maribel.
- **Pisu merke bat erosiko nuke** Arrasaten. 6 milioira arte ordaintzeko gertu nago. Tfnoa: 79 39 92. Jabi.
- **Arrasaten taberna salgai edo alokagai.** Tfnoa: 77 14 93. Agurtzane edo Oskar.
- **Pisu bila nabil Arrasaten,** Aretxabaletan edo Eskoriatzan. Zure pisuan lekuri bazenu dei egin 79 53 00 tfnora. Mikel. (Goizez deitu).
- **Lagun bat behar da** pisua osatzeko Bilbon. Tfnoa: 79 40 64. Leire.
- **Lagun bat behar da** Donostiako Alde Zaharreko pisu bat osatzeko. Tfnoa: 71 45 52.
- **Donostian pisua osatzeko** neska bat behar da. Tfnoak: 79 33 30 edo 79 98 37.



**Lana**

- **Mekanikan esperientziadun** 19 urteko mutila gertu lan egiteko. Tfnoa: 79 37 68. Juan.
- **Mutila prest kamarero lana egiteko,** esperientziaduna naiz. Tfnoa: 79 97 55.
- **Etxe, bulego, dendak, atarteak...** garbitzeko prest nago. Umeak ere zainduko nituzke. Tfnoa: 79 85 40.
- **Esperientziadun neska prest dago** plantxa egiteko. Tfnoa: 79 42 05.
- **Neska bat behar da** bi ume txiki zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Dei egin 2etatik 4etara edo 8.30etatik 10etara. Tfnoa: 79 59 49.
- **Ingeleseko klase partikularrak.** Tfnoa: 79 02 11.
- **Esperientziadun neska** umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tfnoa: 79 31 44. Mirian.
- **Neska bat behar da** umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 33 21.
- **Kafetegi edo jatetxe baten** lan egingo nuke egun erdiz. Tfnoa: 79 23 58. Rosa.
- **Bidaiatzeko gertu dagoen komertziala** behar dugu. Bidali curriculumak 103 postakutxatilara.
- **Neska gaztea gertu** etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko arratsaldetan. Tfnoa: 79 77 91. Sonia.
- **Euskaraz edo erdaraz** klase partikularrak ematen ditut. Edozein gai eta maila (OHO, EGB, BUP, COU...). Tfnoa: 79 46 75. Amaia.
- **Austriako familia batek** au-pair bat behar du gutxienez 9 hilebeterako. Tfnoa: 19 10 96. Edurne.
- **Irlanda aupair-a behar da** lehen bailehen. Tfnoa: 77 06 83.
- **Gizarte Laneko ikasle** den neska euskalduna edozein lan egiteko gertu. Tfnoa: 76 64 60. Alaitz.

- **Ingeleseko klase partikularrak** ematen ditut. Talde txikiak eta maila guztiak. Tfnoa: 79 09 11.
- **Ingeles eta ESoko (OHO)** klase partikularrak ematen dira. Talde txikiak. Esperientzia eta tituloduna. Tfnoa: 79 56 78.
- **Lau urteko esperientzia duen mutila** gertu kamarero lanak egiteko. Tfnoa: 79 87 40. Aitor.

**Salerosketak**

- **Fagor markako gas berogailua salgai.** Berria eta handia. Cibro markako berogailu japoniarra salgai. Tfnoa: 79 81 25. 9etatik aurrera deitu.
- **Irrati kontrolero 1/10 eskalako kotxea salgai.** Tfnoa: 77 01 83. Josu edo Luis.
- **Sanyo ECR 375 makina erregistratzailea salgai.** Denda batendako aproposa. Prezioa: 50.000 pta. Tfnoak: 79 25 96 edo 77 99 41.
- **BX-GT gorria salgai,** BI-AK. 150.000 pta. Tfnoa: 79 42 65. Andoni edo Konsuelo.
- **Baserrian hazitako artzai-txakurkumeak salgai.** Tfnoa: 79 35 47.
- **Motorran ibiltzeko larruzko txamarra salgai.** Tfnoa: 77 04 21.
- **Kontsultarako liburuak oso merke saltzen ditut.** 2.000 pta eta oparia aparte. Tfnoa: (907) 22 30 22 edo idatzi Ermuko 181 postakutxara.
- **Zine musika zintak salgai** baita ere gregorianoak eta musika klasikakoak, Richar Claiderman, ABBA... Tfnoa: (907) 22 30 22 edo idatzi Ermuko 181 postakutxara.

**Denetarik**

- **Autoa konpartituko nuke** Gasteiza joateko. Egurdiko 2.15etan joan eta 9.00etan etorri. Tfnoa: 77 09 74.

**Aste Gazte**

**Bekak**

- Heziketa, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 96-97 ikasturterako beka deitu ditu, unibertsitate mailako eta goi mailako beste ikasketa batzuk burutzeko. Epea: urriak 15.
- Unibertsitarioak ez diren ikasketak burutzeko beka eskatzeko epea: urriak 18.
- CSIC-EFE Kazetaritza Zientifikoa bultzatzeko beka. Kazetaritza lizentziatuei zuzendutakoak. Epea: urriak 15.

**Lana**

- Basauriko Udalak, zenbait

lanposturen deialdia egin du: Administrari plaza bi, Barne Kontu-Ikuskari bat, Ofiziotako langile (Gidari-Makinaria) bat, Agente exekutatuak bat, Udaltzain bat eta Zerga-Biltzaile Orokor bat. Epeak: urriak 6.

**Ikastaroak**

- Euskal Dantza ikastaroa Lore Gazteak dantza taldearen eskutik. 15 urtetik gorakoei zuzenduta. Urriaren 18tik abenduaren 13ra. Ostiralero, 7etatik 8.30etara. Bikote mugatuak. Matrikula: 4.000 pta. (2.500 pta. ikasle eta lagabettuak).

- Dantza Karibearren ikastaroa. 15 urtetik gorakoei zuzenduta. Azaroaren 11tik abenduaren 11ra. Astelehen eta asteazkenetan, arratsaldeko 7.30etatik 9.30etara. Plaza mugatuak. Matrikula: 4.000 pta. (2.500 pta. ikasle eta lagabettuak).

**Lehiaketak**

- "Gazteak eta Intsumisioa" VII. argazki lehiaketa. Bi kategorio: a) Deba Garaiko 14-18 urte bitarteko gazteak. b) 19-35 urte bitarteko edozein. Zuri-beltzean zein koloretan. Epea: urriak 11.

**"Begiratu zioten elkarr, jakinda ez zegoela haien artean ez gaztetasunik ez nahikoa indarrik elkarrengandik banatzea eragozteko"**

**LAWRENCE DURRELL  
"BALHAZAR"**


**Informazio gehiago:  
GAZTE  
ZERBITZUA  
Tfnoa: 77 00 65**

## Baduzu euskararen aita-amapuntakorik?

- Euskalduntze maila guztiak.
- Alfabetatze.
- Ikastaro bereziak:
  - Enpresa taldeak
  - "Benetan" (Euskara ikasteko programarik errazena, zure ordutegira egokitua).

MATRIKULA-EPEA ZABALIK Irailaren 2tik 17ra arte.

PLAZA MUGATUAK. Beka sistema daukagu!



## Egizu! Izango duzu nork lagundu!

ARIMAZURI, 2 (Eskola Politeknikoaren ondoan) • Telefonoak: 79 70 77 / 79 77 88



ARRASATEKO UDALA

Udal Euskaltegia ■

- Leiho termoakustikoak
- Ateak
- Horma armairuak
- Altzariak

# UGARTE

## ALTZARIAK DEKORAZIOA

### ARROZTEGIA



San Juan, 1 (Gasolindegiaaren parean) • BERGARA • Telefono eta Faxa: 76 54 91

# IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

*Zure ilusioak egi bihurtzen duten kolore,  
materiale eta forma berriak.*



**KONTZEPTU  
BERRIA**

**FAGOR** 



*Nortasuna.*



*Funtzionaltasuna.*

**SUKALDE ERAKUSKETA**

Udala Plaza, z/g  
ARRASATE • Tfnoa: 79 00 43

**BAINU ERAKUSKETA**

Zarugalde kalea, 52  
ARRASATE • Tfnoa: 79 99 42